


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

172n. Zenbakia Martia/Epaila
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



GASTEIZ

ANDRA MARI ZURIAREN ENPARANTZA

~ ABADIÑO SAN BLASETAN



Abctd ñu 'n San Blasetan, A.~ er Buserriicn-ruku.: trutrfaun.

Abadiño'n San Blasetan
Abadiño'n San Blasetan
neskazarrak bentanetan
neskazarrak bentanetan
mutilzarrak engañetan
mutilzarrak engañetan
Abadiño'n San Blasetan.

Au diño abestiak.

San Blas eguna berezia da gure erri-erlejiñoan. Janari-edariak, aziak eta olakoak bedeinkatzen dira egun onetan.

Ortik aparte, feri itzala egin oi da Abadiño'n.

Zezeilla zan. Bertan abere ta zalditeri ugaria biltzan da eta jente-aldeetik be ez da txarto egoten.

Aurten be egon naz ni an astegun buruzuria izan arren, makiña bat gizon eta andra batu zan Abadiño'n.

Asteko, erri guztian zear postu ipiñiak egozan eta euskal-baserritarrak egozan alde batetik, gaztaiak, in-txaurrak, ogia, ezta eta ezin aitzu leikezan San Blaseroskiak saltzen. Ijituak edo jitanuak be ez ziran falta. An egozan erropak, lanabesak eta beste gauza asko saltzen. Txoznak be ez ziran falta, bertan amaiketako gozo-gozoa jan al izateko.

Ganadu-aldeetik,era guztietako ganaduak ikusten ziran: Pirinaikak, txarolesak, olandesak, mimosiñak, asturiarrak, turankoak eta abar. Zaldiak be, ugari ego-

zan: pottokak, poneyak, pertxeroiak eta Iasterketarako zaldi bizkorak.

Feria ta merkatuarekin batera ba-egozan beste eskintza batzuk be. Esaterako, goizeko amabietan bertsolariak asi ziran batzokiko ataritik abesten: Anjel Mari Peñagarikano, Mañukorta eta Jose Mari Narbaiza.

Bertsolariak amaitu baizen laster, erri-kirolak.

Egun aretan Bizkaiko errekor barria austera joian "Pato" ermuarra. 150 kiloko arri biribillagaz sei jasoaldi egin ebazan, arteragoko errekorra lau jasoalditan egoala.

Gizon-probak be izan ziran: Untzc bat egin eben 9 minutu eta ogei segundotan. Arria idiak probetarako erabilten dabena izan zan.

Erri-kirolak amaituta, omenaldia egin jaken guda-ostetik ona Abadiño'n izan diran alkate guztiai eta Mikel Zarrabeitia txirrindulari goimaillakoari.

Ganadurik onena eta jenerorik onenak eukezan baserritarrak be sarituak izan ziran.

Abadiño'n, jaia egun osoan egoan. Arratsaldean, esaterako, idi-demak edo probak egozan egun aretan: Tio Motxo, Jabi, Kaiero eta beste askoren idi-buztariak ekin eben dema edo probetan.

Eguna amaitu zan, baiña San Blas jaiari Abadiño'n eutsiteko, gustu onak oindiño or dirau.

ASTER LEGARRETA'K

ATANASIO JAUREGI GOIRI

Pasiotarra

UDABARRIA

Udabarrri, izadiaren eta gizadiaren pozgarri. Udabarrriak bere-bereak ditu eguzkiaren berotasuna, izadiaren bizkortasuna, eta bazter guztien edertasuna.

"Udabar-rin, lur guztia ernemiñ". Bere kolkoa mindegi joria dogu. Bai ederra udabar-ria bere loretan. Areago bertatik datozen igalietan. Origaitik gure artean esan oi da: "Maiatza, urtearen giltza".

Izadia, gizadiaren maixua dala dirudi. Udabarrriko bero eta lore barik ez dago udazkeneko igalirik.

Giza-semeak be badau bere udabarrria: umetzaro bigun eta gozoa. Mundu ontako azitegirik onena eta joriena umearen burua eta biotza dozuz. Umeen zer guztia adi eta zur dago azi ona zein txarra artuteko. Aurtzaroa ercin giroa da. Zelako aurtzaroa, alako uztarora.

Udabar-ian jaioa dogu Zelestino jauregi Goiri Larrabctzu'ko bascri ederbaten. (1879, jorraillak 6.). Bere gurasoak Rafael eta Katalin, kristau leial eta zintzoak, esku zabalez creingo dabu umearen biotzean munduko azirik goragarriena: Kristo'rcn maitasuna eta sinismena. Baita erne eta azi be indarrrik aundienaz bere biotzean.

Gure Jaunak, gañera, Zelestino'ren biotz garbian zerutar azia ereingo dau. Eta amabi urte bete orduko Deustu'ko Pasiotarren artean, Kalbario'ko gurutzaren arkaitzetan, sustrai sendo eta sakonak erri-otuko ditu. Emen izen barri bat ezarriko dautse: Atanasio.

Eliz ikasteak amaitu eta aziera ederra arturik, udabarrriko beste egun zoragarri baten Meza barria emongo dau (1901, jorraillak 6).

BIDE BARRIAK

Lengo urteetan nork ez ditu ezagutu Euskal Errian Pasiotarr mixiolariak erririk erri mixio garratzak emoten?

Oraingo, barriz, Euskal Pasiotarrai lurralde zabalagoak eskeiñiko jakez Peru'ko San Martin deritxon eskualdean. (1912) Emilio Lisson zan garai artan ango gotzaiña, etat bertako kristauak °artzain bako ardiak lez zebiltzan".

Zer egiñ? Nundik eta zelan eskuratu Amazonas lurralde zabal onetarako mixiolariak? Ez da, ez, gauza erreza. Onako arazoetan oi dan lez, Lisson jauna, Erroma'ra joan da Pasiotarren Nagusiarengana. Ango Nagusiak ezetza emon bearean Deustu'ra bideratu dau, eta emen zoragarritzko baietza emon jako.

Modu ontan Euskal Pasiotarrai bide barriak zabaltzen jakez. Eta aita Atanasio'ren ardurapean, badoaz Peru'ra amabi mixiolari, Jaunaren amabi apostoluak bezelaxe.

Bilbo'ko kaian itxasontzia artu eta: "boga, boga mariñela, joan bear dogu urrutira, Kristo'ren Barri ona zabaltzera".

I

Bide barriak esan dogu. Baña, bai al dago an biderik? Bai batzuk, oso neketsuak, egizko gurutz bideak. Aurrez aurrez ikusten dabez, edurrez eta lañoaz estalduta, Andes mendi gallurrak. Amazonas aldera joateko mendi tontorrek gainditu bearko dabez, mendi bitarte sakonak eta basatiak igaro, erreka apartsuak zearkatu, eta rnuga bako bide-sailak ibilli.

Kristo gurutzetuaren eskolan ikasiak dagoz bai, eta gaurtik aurrera bere eskolarik gogorrenagaz jabetu bearko dira: gurutzea eta nekaldia. Zer dala ta? Etxe bizitza kaskar ta koskorra, janari urri bat ago txar-rekoa, erri batetik bestera joateko biderik, autorik eta zaldirik eza, eltxo biurri eta gaiztoen zizti ta zazta, eguzkiaren bero kixkalgaria. Egiaz, beste mundu eta beste giro bat.

Gurc eusko semeak ez dira kikilduko eta ikaratuko. Eusko endar-cn jatortasuna, eta Jaunaren grazia lagun dabela, aspertu barik ibilliko dira erreka inguruetan bizi diran giza-seme giza-joai laguntzarik onena emoten. Erreka ondoan bizi diranai? Bai zera, bizi, ez. Arat onat ibilli eta ibilli.

"Ona etorri diran Pasiotarrak Kristo'ren maitasun bigunagaz, etx euren bizikera maitetsuaz kutsatu dabez emengo biotz guztiak. Ez dot uste Afrika eta Asia'ko mixiolariak ainbeste estu-aldi eta neke-aldi izango dabenik" (Lisson).

IZAN ETA EKIN

Sarri askotan gizonaren oore ta aintza bere ekintza goragarienctan ipiñi oi dogu. Ezta ori egoki eta zuzen. Gizonaren aunditasuna bere izate eta izakera gunean dago. Ortik sortu bearko dira, iturburutik ura lez, egite goragarriak.

Gure Atanasio'ren aunditasuna bere barru-muñean dago. "Odolak su barik diraki". Bere odoletik sortzen da Jaungandik arturiko grazia, buru argitasuna eta zurtasuna, biotzaren ontasuna eta beratasuna, eliz arazoetan gaitasun berezia, eta giza semeen onerako biotz zabaltasuna.

Au da: izan, gauza izan, eta ekin. Beretzat eta besteentzat auxe da bere elburua: "Nori berea da zuzenbidea".

Onako gizonakin, gizaldia, udabarrria lez, loratu egingo da.

1992'KO EKINTZAK

BATZAR NAGUSIKO ITZALDIA (1993-1-28)

Gabon Jaun-andreok:

Ona emen, beste urtebete igarota, Batzar Nagusi onetan "EUSKERAZALEAK" erakundeak euskeraren alde burututako ekintzen azalpena. Urte bereizia izan da 1992'ko urtea, zidarrezko ezteguak ospatu doguzalako, baiña oneri buruz geroago mintzatu nahi izateko.

EUSKAL IKASTAROA

Oikoa dan lez 1992'ko ikastaroa urrilla'n asi zan, eta aurten poz baten azaldu bear dautsuet, beste ikastaroan baiña % 10 bat geiago ikasle izan dogula. Badiardi azken aldiotan izandako beerakadea azken baten geldituta. gora egiten asi gareala.

EUSKAL ASTEA

Aste onen ospakizuna, Gabonillan barik, Bagilla'n egin genduan, gure zidarrezko ezteguai dizdira andiango emotearren. Aste oneri dagokiozan gorabehera guztiak geroago azalduko dautsuedaz.

IPUIN-SARIKETA

Urte onetan zeozer atzeraku yaku, eta augaitik aurkeztu izan diran ipuiñen sariketeta, urrengo "ZER"en jakiñerazoko dautsuegu. Lau sari izango dira, eta oneik izan be:

1'goa 40.000 laurlekokoa - 2'gna 30.000 koa - 3'gna 20.000 koa, eta 4'gna 10.000 koa.

ZIDARREZKO EZTEGUAK

Ona emen, guretzat izan dan ospakizun andienariko bat. Gure erakundeak sortu zanetik etenbarik euskerearen alde egiñez, 25 urtez iraun dauala gogoratzen dogunean, arrotasunez beterik oartzan gara. Asiera baten batez be, soster andiak aurkeztu yakan erakundearen sortzailleai, baiña banan-banan ga-

raitu izan ziran, euskerarentzat giro txarreko garai areitan.

Uste izan genduan, eztegu orreik bear dan lez ospatzeko, oso egokia izango litzakela, Gabonilla'n atontzen oi genduan Euskal Astea, Bagilla'ra aurreratzea, eta augaitik, Bilbao'ko Eskolapiotarren laguntzaz, Euskal Aste bereizia atondu genduan onetaxez:

Bagilla'ren 15'gnean Aita Santi Onaindia izan genduan izlari, Ziarsolo'tar Manu ta onen lanak gaitzat artuta. Oso jakingarria izan zan Aita Santi'k garatu eban gaia, eta "Abeletxe" k merezi eban goratza-
rra be. Onen nortasuna ezagutzera emoteko, au da, zelakoa zan Ziarsolo'tar Manu, gizon, ipuinlari, antzerkigille ta olerkarizat, agiri jarri eban izlariak.

Urrengo egunean (16'gnean) Berrojalbiz'tar Julita'k jardun eban, "Euskerea Bilbao'n" gaitzat artuta. Ondo be ondo ezgutzen dau andra onek euskerearekiko garai illun areitan, berak eta eskukada andereiñoeek gure izkuntzaren alde egin ebena. Euskereak zor andia dautse izan be, Julita'ri ta bere lankideai.

Eguastenean (17'gnean) Olazar'tar Martiñ'ek berba egin euskun "Euskerazaleak" alkartearen argitalpenak aipatuz eta zeatzuz. Xabier Peña'ren "ikasbidea", "Iniciacion" Peña'k eta J.A. Montiano'k idatzia. "Nora Zoaz" Goikoetxea'tar Iñaki'k atonduta. Montiano-Urkijo'ren "IKAS" iztegia. Imanol Rotaxe'ren "Alkarrizketa". Aita Goikoetxea'ren "Giza-Soiña". "Aurtxoa" ingurraztiak, "Irakurgai Errazak" etab etab, Olazar'tar Martiñ'ek dauan ezagueraz banan-banan orrean zertzelada ugariak emon euskuzan.

Egubenean (18'gnean) Zubikarai'tar Augustiñ'ek "Euskal Egutegiai" buruz maisuki jardun eban, agertu diran euskal egutegi guztien jakingarriak emonez, lenengoa sortu zanetik gaurdaiño. Izan be, arrituta geratu gintzazan entzuleok, ainbeste ta ainbeste zertzelada zudugarriak entzutean. Ordubete bat iraun eban itzaldiak, geuri, entzuleai, amar miñutuko berbaldia iruditu yakun.

Barikuan, (19'gnean) Euskal Asteari amaia emonez, Zubiri'tar Iñaki erakundearen gaurko lendakariak, "Euskerazaleak" ogei ta bost urteotan egiñiko ekintzen azalpena egin euskun, lenengo batzorde-

koen izenak eta gaurkoenak emonez. Gero, urtetik-urte izandako ikasleen kopurua, baita irakasleen zere-
rendea be. Ekintza jakingarriztat, "ZER" aldizkaria,
"Egutegia" "Ipuin sariketa" "Euskal Astea" aipatu
ebazan, baita euskalzale ospetsuai egiñiko goratza-
rreak be. Eta amaitzeko gomutapenak izan ebazan,
Xabier Peña, Karmelo Etxenagusia, J.A. Montiano,
eta alkartearen Ienengo lendakaria izan zan Jesus
Oleaga'rentzat.

Urrengo egunean, Bagilla'ren 20'gnean, Larunba-
tean, eguberdiko ordu batetan, gure erakundearen il-
dako bazkideen alde meza bat ospatu zan San Anton
eleizan, meza-emoillea Olazar'tar Martin izanik.
Onen ostean, Urkia jatetxean anaiarteko bazkari
batez gure erakundearen 25'gneko urteko adiña os-
patu genduan. 60 bat bazkalkide izanik. Bazkalos-
tean, gomuta-agiri bana emon yaken erakundearen
sortzailleai. Gero, Bizkai'ko Foru Aldundiaren or-
dezkariztat maipuru genduan Legarreta'tar Manu'k
zidarrezko gomuta-idazkun bat eskiñi euskun, eta
"Agur Jaunak" abestiaz ospakizun gogoangarria
amaitu zan.

EGUTEGIA

Aspalditik oi dogun lez, aurtengo egutegia atondu
genduan, argitaldia Bizkaia Bilbao Kutxak ordaindu-
ta. Gure irakurleai baita enparauai be, dalako egute-
gia atsegin dakiela, eskatzen dogun sari bakarra da.
Aurten be, Jaungoikoak lagun, datorren urtekoa
atonduko dogu.

"ZER" ALDIZKARIA

Ona emen pozez beteten gaituan ekintza garran-
tzitsua, gure alkartekideekin arremonak izateko bide
onuragaria, baiña ain aitzu ta apaldua izaten jarrai-
tzen dauan Bizkai'ko euskereari aal dogun aize ar-
nasgarria emoteko batez be. Betiko oitura negarga-
rriari jarraituz, euskeraz jabetu diranek, bizkaierari
ogia ta gatza ukatuz irauten dbe. Burua bere lekuan
daben euskaldunek itxartuko ba'litzaz, beste kuku
batek joko leusku, baiña euskaldun geienen zabarke-
riak eta arduraezak, gure bizkaieria gaurko ateka lar-
rira eroan dabe. Beste erri baten olakorik ez litzake
jazoko, baiña Euzkadi'n gaur euskotarrek ez daroe
euskerea biotzean, eta augaitik, euskereaz jabetu dan
talde batek, izkuntzaren alorrean kalte izugarria egi-
ten darrai. Itxartu gaitezana...!

Eta azkenean. zuen idazlanen bidez "ZER" eri ar-
nasa emon dagiozuela eskatzen dautsuet ereti onetan
be.

LIBURU-AZOKA

Urtero Gabonilla'n Gerediaga alkarteak Duran-
go'n ospatzen dauan Liburu-azokan tartekoak izan
gara. Aurten igaz baiño zeozer geiago saldu dogu,
baiña esan bearrean gara. ainbeste saltzaille ta eros-
leentzat batez be, orain arteko lekua oso txiki ta au-
kerabakoa geratu dala. Dirudianez, akats oneri buruz
eratzaillak oartu dira, eta uste dogu, beraz, aureran-
tzean toki egokiago baten ospatuko dala, ikerleek
leku eroso, argi ta zabala izan dagien.

LAGUNTZAK

Zuen laguntza barik, irakurle ta bazkideok, gure
erakundearen bizitzak jarraitzerik ez, eta barriro be
emonkorrak iraun dagizuen eskatzen dautsuet biotz-
biotzez.

Ezin, baiña, aipamen barik itzi Bizkai'ko Foru
Aldundiaren laguntza garrantzitsua, baita BBK'ren
eta Bilbao'ko udalarena be. Olan jarraitzekotan
burua atarateko gai izango gara gure euskerearen
onerako.

Besterik ez, Jaun-Andreok.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

Zornotza'ko Karmelo ikastetxean

Etsai gogorak alde danetan
ditu gure erlejiñoak.
Beraren aurka itz eiten dabe
gaur sasi-abogaduak.
Goi-maitasuna guzurtau nairik,
sinistu nairik bekuak.
Ai! oneik dira lege barriko
Doipuru-Aita Santuak.
Erromak baiño geiau dakien
fariseo jakintsuak,
baiña begiak argi zoliak
daukaz gure Jaungoikuak
ikusit eta ezagutzeko
ardi-nan-udun otsoak.
Egipenetan ezautzen dira.
egizko katolikuak.

Sain Enbeita Goiria

USTELKERIA INGURUAN

GAURKO EGOERA

Politikariak, alderdi politikoak eta gobernuak, egu-notan batez bere, gure begien aurrean basatzen murgilduta dakusguz.

Batzuei eta besteei entzutean, au danau kakaztuta dagola diñoskue. Izan bere, gizarteak bere iparra galduta gero, itxas-lapurrak nagusitu-ta ontzia ur andietaria eroateko al-egiñetan dabiz an ezkutuan bera ondatu naiez, itxas-gizon zintzoak narru gorritan itxiaz.

Askok deadar eta oi u egiten badakigu, geu errudunak izan giñakela konhuatu barik. Esaterako, auteskunde-aroan botoa emotera joaten ez diranak geiegitxoak dirala esan bearko da, euren iritxiz, autagaiak ez dabelako merezi astia alperrik galtzerik, salbuespenak salbuespen, danak ganadu bardiñak diralako. Jokabide orreri alperkeri utsa ta atsa dario.

Guk or-konpon badiñogu, inguruan dabilzan piratak eta pirañak nagusitu leikez, eta orduan ez dago negar egiterik, geuk daukagun erruari leenengo begirada bat emon barik.

ELEIZEAREN KONDAIRA

Nik neure burua politikaritzat ez daukadanez, arlo on-etan osabiderik ezin dot eskeiñi. Baiña, naiko ondo ezagutzen dodan gure eleizearen kondaira kontuan artuz, politika-munduak bere zer-ikusi eta ikasi dabelakoan zer-edo-zer esatera ausartzen naz.

Gure kristiñau-alkartean, eta batez bere berton agintaritzan dagozeneri Eleizama deitzea Qogoko jat. Amak seme-alaben ardura apartekoa erakusten dahe beti, eurek bide okerretik a ez daitezcan eta bide zuzenean iraunazoteko. ~

Ardura ori bear-bearrezkotzat daukogu. Baiña, ama ta seme-alaben arteko ar-emonak estuegiak eta luzaroe giak gerta daitekez. Amak seme-alabak bere magalpean jarraitzea nai leuke, baiña oneik euren nortasuna eta askatasuna murriztuta sentitzen dabenez, orain euren buruak iñoren azpian, naita amarena izan, egoteko asmorik ez dabe erakusten. Ortik datoz familietan ainbeste tira-bira ta aitu-ezin.

Nortasuna ezin mugatu leiken zertasuna da. Alde batetik, ondo ezitzen ez bada nortasuna, berekoia biuritzen da, eta besteen eskubideari begirune eskasa agertzen daki. naita bestc ori ama izan.

Beste aldetik, nortasuna zapaltzen bada, seme-alabak eskeiñi leikezan aurerakuntzak eta obekuntzak gal-

tzen dira. Ez da ez erreza, bide erditik jotea eta zaarren eta gazteen eskubideak ondo orekatutea. Ez gara beti jokaera batekoak izaten: gazteak gareanean askatasun geurekoiaren alde jokatzeko prest gagoz une guztietan, baiña adin eldura gatozanean, geure agintaritzan ta seme-alaben menpekotasuna doguz begien aurrean, eta jokabidean.

ELEIZAMA ETA ONDORENGOAK

Gure Eleiza Katolikuan bere, antzeko zer-edo-zer jazo izan da bere kondairan zear azkenengo urteok arte.

"Eleizama" gure alkarteari deitzeaz, deitura orrek gainbegira geiegiren susmoa dakar. Bakoitza wne-egoerara mugatzen dauan amakeria. Aultasun orrek, zati baten beintzat, zergaitik irudi ori ez dala gaur egunean asko erabilten erakusten dausku; alan da guzti bere, ez dabe aurkitu jakitunak beste benetako deitura egokirik.

Orra ba, bere akatsak eta guzti, "Eleizama " deiturak oraindiño alako zirrara sortzen dau eleiztarren artean. Zergaitik? Naita sarritan ainak bere egin-bearretik kanpo jokatu, seme-alaben maitasunik ez dau galtzen.

Eleiza Kristok maite daben gorputza da. Kristok aren alde bere burua emon eban. Eta Kristoren jarraitzaileak euren buruak Eleizaren alde emoteko prest badagoz, Eleizak bizirik iraungo dau. Kristiñau erriak, eta kristiñauak ez diranak bere, instituziñoak ez dituelako maite, gitxitan emongo dabe euren burua insituziñoen alde; erriaren maitasuna lortzeko euren jokabidean erriaren alde ekin bear dabe leenago.

Eleizak aikarreganako ar-emonetan maitekiro jokatzen badaki, mendez mende eleiztarren esku-zabaltasuna bereganatu izan dau.

JAUSPIDEAK

Dirua ta agintza diranez balio nagusienak mundu onetan, inguruko erakundeakaz estu-estu lotuta egon diran eleiz-erakundeak, ez litzake arritzekoa izan bear balio orreik eureganatzeko zirrikaldian jaustea.

Eleiztar pekatarien jauspideak eleizaren bizi-izatea arriskuan jartzen dabe. Kredoaren atal batek diñoanez: "Siñisten dot eleiza santu ta katoliku•a". Erriak siñismena daben giñoan, eleizak iraungo dau, naita bere agintariak eragin-bakoak izan.

Baiña, eleizaren santutasun puztua makaltasun biur-tu leike, bere egiazko akatsak estaltzen badira.

Batzutan eleizaren pekatuak eta auleriak, agintarie-nak batez bere, ezagunak izango balitzaz eskandaloa sortuko litzakela-ta, kristiñau erriari ezkutatzera eragin dau.

Senarrak edo emazteak bere ezkon-lagunaren oke-rrak ez dauz mundu zabalera jaurtiko, maite badau beintzat. Sendiaren maitasunaz jazoten dan lez, Kristok maite dauan eleizea bere emaztea dalako, pekatuak-eta, onen irudia zikindu egiten dabe. Baiña pekatu orren az-pian sufritzen dagozan kristiñaueri, ixiltasunak kaltea luzatu egin leikie. Oraintsuarte eleizan, batez be erlijio-soen eta abadeen utsuneak, ixillean lagaten izan dira.

Orain, barriz, gure etxe-barruko arazoak-eta egune-roko orrialdietan aizatzen dira. Eta txarragoa dana, eleiz-arerioak aopeko naskagarrienak ezaguterazika dabizan unean, -egia esan, geiegikeriz beteak- katoliko askok ezin izan dabe iruntsi kanpotik datorkiguzan, eta oraindiño barrutik kritikatuak ikusi ez dabezan eleiz-gizonen diru-zalekeri, arrokeri eta beste olako peka-riiak.

GURE ERANTZUNA

Eleizaren makaltasunak ez dira zoritxarrez gaurkoak ain zuzen bere. bere baitan olakoak asierako aroan ikusi ziran. Arriskuak: legekeria, agintekeria eta kleri-kalkeria. Jesusen eta Espiritu Deunaren eragin barik, eleizako agintari barriak judeguen legelariak eta pari-saitarrak lez, galbidean aurkitu leikezan.

Alkarte organizatueta euren agintaritza gaiñez egi-tea daitekena da, baiña ez gero agintaritza berari uko egitea. Sarritan parkatzea auzian sartzen danean eleiza arduratsu da, nasai jokatuten dabillala salatua izan ez dadin.

Alan bere, eleiza parkatzen urria izan dalako bera laga daben kristiñauak asko ta asko izan badira, ez olan eleiza parkatzen errezegia dalako; berari agur egin dau-tsoenak gitxiagoak izan dira arrazoi orregaitik lagateko urratsa artu dabenak.

Pablo Deunak Titori esandakoa gu bere geure joka-bidetzat onartu bearrean gagoz, bai eleizbarruko ar-emonetan, bai gizarte zabalean:

"Gogoratu danei, buruzagien eta agintarien men-pean egon bear dabela eta euren esanak egin, egintza on guztirako prest egon daitezala. Ez dagiela iñorenga-tik gaizto esan, ez dagiezala liskartsu izan, maitaga-riak baiño, gazteentzat biotzberak agertuz " (Tit. 3,1).

ZUBIKARAI'TAR JOSEBA

BERTSOAK: (8-ko **andian**) Gaia: EUSKERIA

Gure arbasoek utzi euskuen
altxor bezala euskera,
arreta andiz eskatu euskuen
ez usteko bertan bera.
Erdera nagusitarren
beartuta ez gauz uster.
Gure izkuntza maite bear dogu
euskaldun onak bagera.

Egoera kaxkar baten dago
gaur egunez euskera,
kontutan artu bear dogu au
ez da batez uskeria.
Euskera Euskadin egin ezker
jasoko dogu saria.
Gure izkuntza maitatu bear da
bera bait dogu geuria.

Ene lagunok goratu daigun
orain gure izkuntza zaarra.
Denok baturik eukiko dogu
bera suspertzeko indarra.
Erderak eiten deutson kaltea
da berarentzako txarra.
Euskera nola dagon ikusiz
datorkit niri negarra.

ASIER LEGARRETA



ADISKIDE EZ ETE?

AITA AKESOLO TA NI

Ibilli al zara egundoren baten, Gorbea puntan, iparrera begira dagoan urtu-eziña dan edurtza galant-ederean, edur-bolak egin eta andik beera, gero ta aundiago egiñik, andik kilometro batzutan dagoan troka sakonean lertzen dala begira? Ni bai, eta ez gitxitan, negu aldera atan be.

Ba, orrelaxe jazoten jatzu barritsu batek, jakin ez zelako asmoz, sortu oi dauan. guzur biribil bategaz be. Eta gaur, diñoenez, naikoa zabal dabilkigu oitura nabarmen ori: bai, orrelaxe da, bizi-bizi kaltekor jakun arren. urte txar baten muski bedarra soloan lez naskagarri agertzen da gizartean.

Zergaitik diñot au? Gugandik asko ez dala urrundu zan A. Akesolo eta ni adiskide ez giñala, lengoan entzun nebalako. Arrigarrizat jo neban entzuna. Alan be olan dala etxeakoak baiño geiago jakiten dabe auzokoak. Alkar jotzen lez eleiz-karrera denboran amairu bat urte alkarregaz batera egin genduzan, eta gerra ostean beste iru jokatu benduzan espetxean.

Aita Lino ni baiño aste bete lenago eldu zan Larre'ra; ondoren karrera osoa bete genduan alkarregaz. Ez erderarik. ez latiñik jakin barik asi giñala be laster azpiratu genduzan izkuntzak dakazan eragozpenak: ez genduan iñoiz be urterik barritatu bearrrik izan, euki genduzan irakasle -Gregorio Anaia, eta Aita Ermenejildo, Markoz, Migel, Anjelo, Plazido, Anjel eta abarri begirunezko eta maitezko esker beroak.

Alkarren leian biok egindako gure euskal-lanen lenlortzak be ementxe ta Markiña 'n agertzen dira. Gu bion lanak, garai artan egiñak, Donostiko "Euskal Esnalea"n datoz; lan bat osotu gendun alkarren artean lez, eta saria eskuratu, eta orduko gure irakasle Aita Anjelo Jauregi 'k, gero, eguna pasa, ibillaldi eder bat eskiñi euskun; Durango'tik Legutiano 'ra autobusez, andik Aramaio'ra oiñez, an A. Anjelo'ren etxean bazkaldu. Santa Ageda ikusi eta Arrasate'tik. Eibar'tik trenez Larrea'ra; beti gogotan darabilgun egun zoragarria.

Nobiziadu garaian asi nintzan ni, nagusien baimenarekin, Lixieux'ko Teresatxo Deunaren bizitza, berberak idatzitakoa, euskeraz jarten; ementxe asi eta apurka-apurka geure ikastaroko opor-aldietan egin genduan itzulpen ori, nik euskeraztu eta arek utsak aztertu: gerra sortu zaneko dana geunkan amaiturik, baiña naste eta ariñeketakaz or geratu zan lan ori amaiturik, baiña ostendurik edo-ta erreta. Dana dala, nik merezi ebalata, barriro euskeraztuak izan ziran eta argitara-

tuak: onetan ez neutson ezer adierazi, eta bear bada onek ez ete zerbait aren sentikortasuna aldatu? Ba leiteke. Batzutan edozein itzxinkerik gure barruari eragiten.

Beti ez arren, nik laguntza eskatzen neutsonen, a beti neukom gertu bear nebanaren argitasuna eskintzeko, orretan poza sentitzen ebala, nik uste. Olan osotu genduzan lan batzuk. Kepa Enbeita 'ren olerkiak, adibidez, alkarren gogoz eta arnasez burutu gendun. Bizkai-ko Aldundiko irakur-aretoan alkartzen giñan goiz eta arratsalde orduetan, arek "Euzkadi"-n etozanak aurkitu eta nik eskuz idatzi, orduan ez bait zan tresna ortarako berezirik. Taiu orretan burutua dozu millaka olerki daukazan liburu mardula, Buenos Aires 'en argitara ekarria: oraintxe ostera argitarau naiez gabiltzana.

Geroago be, ia bardin egin genduan Lauaxeta zana-aren lanakaz. Bion arteko lana zan, pozik egiña. Langille porrokatua zan Aita Lino, eta olakoetan edozeiñi laguntzeko beti gertu egoana: maite eban euskera, eta orobat euskera lanari ekiona. Niri beñik bein ez eustan iñoiz be ezetzik esan. Ez eustan betondo illunik be egundo erakutsi.

Eta zuk diñoizu ba-ekiala iñoizka arpegi illuna jarten? Egia! Aren lanak irakurri ezkeru, ori errez jatzu nabari. Asko ekienen lanetan, euskal lanetan ezin eban okerrik ikusi; ezta neuri be ez eustan parkatzen; askotan ez, baiña noizik bein sartzen zan neugaz be, gauza nimiñoetan sarri. Ez jakon eder arrokeri putzetan ibilli eta ondoren olako utsak egitea. Etzan gizon jakitunaren jasa. Giza-semeak bada beti jokatu bear dau ganorearen mende.

Biok ez gara iñoiz be, esan garaietatik kanpo, alkarrekin bizi izan, komentu bestelakoetan baiño alan be, maiz alkartu oi gintzazan. Giltzapetik urten ondoren alkarrekin egon giñan urte batean lez, Hoz Aro'ko barkartadean, a gero andik urriñago, ni Gasteiz 'en eta Logroño 'n. Bein an nengoala, Teresatxo Deunaren jaiak ziran Zaragoza'n. Deitu neban eta mañu-errian emon genduzan biok amabi egun. Ori egin genduan geiagotan be.

Beste bein Palenzia'ko Goterkitik deia, joateko biok ara. Guk biok, kartzelan gengozala, ia urte bete egin genduan espetxean Venta de Baños'en, Trapatarren konbentuan. Manuel Gonzalez zan ango gotzaiña. Gizaseme ona zan, baiña batzuk, ango goterkikoak donetu nai izan ebenean, trabak jarri ebezan: Gotzain au, aurreko urteetan, Malaga 'ko Gotzai zala Elorrio 'ra etorri eta antxe bertan espetxeratuta aurkitzen zan Elo-

rrio'n parroku izandako Izurratgi jauna, alegin aundiak eginda be, antxe kartzelan il zana, (san Ander egunean il zan), eta urteaz Qeroago Elorrio'ra ekarri ziran gorpuzkiñak. Danak ez eben gorabera ori begi onez ikusten. Orixe zala-ta eroan ginduezan Qu. Iru egun an emonik. Burgos'tik, Bilbao'tik etxera. ~

Orrez gaiñera, esan dagiket biok izan genduzala umetatik zaletasun bardiñak, euskal-zaletasun bizi-bizia; orretan, arrokeri barik, ueste dot neu izan nintzala aurrelari: nik zerbait egiten ba neban. or etorren bertatik Aita Akesolo. Giltzapean giñala izketak ikasteko griña sortu jakun. nik Dueso tik nenkarren gogo beroa izkuntzetarako, ta espetxean izan naban aukera izan ez bai neu. ez nituan ikasiko ikasi nebazan beste.

Duezo n asi nintzan izkuntzak ikasten Ipar-amerikan ibillitako itxastar batekin. olan jarraiturik geure espetxe-garai guztian. Ni edo nire lagunak asten giñan aurrenik, eta gero etorren ondoren ni arrapatzen Aita Lino. Amar bat gintzazan frantsez, ingles. aleman eta olakoak ikasten genbiltzanak. Gu asi ta gero konturatzan zan Lino, eta jarraian egin oi zan gure saillera. Aleman ikasteko. Julian Besteiro zan ;ure irakaslea. Besteak beste ainbat itzulpen burutu zitun Linok doiz eratik espaiñerara. Olan, naiko ariñagoa zan gure giltzape-bizitza.

DAUST ALA DEUST

Auzi au iñoiz leporatu dauskue. Alan be egundo geure bion artean erabilli bakoa. Ez, ez genduan sekula geure artean eztabaidatu. Alkarrekin egin oi genduzan lanak. azken-igwrtzia emonda joiazan, ezta-baida barik. Iñoiz egia, esan eban Linok ori ez doa nik idatzi lez, baiña beste tautik bere ez, bat gentozan heti.

"Daust" idazten genduan garai atan, Azkue jaunak. Aranatarak. Eguzkitzak, Manterolak, Ibartutxik, erre-bistak, "Jaungoiko-Zale" k, "Karmengo ARGIA" k, eta garai artako besteak (baita Euskaltzaindiak be) olan idazten ebelako. Aldizkari onetan, Azkue zanaren aginduz antza danez. Orixe k enkuesta bat egin zuen bein, eta geiago ziran "daust" idazten ebenak.

Markiña aldean "daust" geiago darabilgula; alan be, idazkeran "deust" erabilten zan geienik. ikusi Mogeldarrak, Prai Bartolome eta besteak. Gizaldi ontan. baiña "daust" idatzi izan dogu beti, Azkue buru zala, Orixegaitik nik. batasuna be ona dala-ta, "daust" idatzi izan dot beti liburuetan.

Orain pizkat arteztu gura-ta dabilkiguzan batu-za-leak dana barriztu bear zalako eritxiari askatu geiegitxo emonik, egin ziran olako laprastada batzuk. Barriztatzailleak beti dakaz geikeriak berarekin, emen bere bai eta okerrok zuzendu bear. Okerrokaz konturatu eta zuzentzea bai dozula bikain!

Ez diñot txarto ala ondo eginda dagoan, baiña garai atan artu ziran beste barrikeri batzuk be, bizkaierari buruz diñot, ari ta oni itaunka ibilli barik, jakiña, izkuntzan aldakuntzak sartutzeko eskurik ba ete dau! Urte batzuk dirala urtendako Irakurgai barriakaz genbiltzan izketan lengo baten lagun bat eta ni, eta zer bateri eldurik, ori neuri eta Aita Lino'ri egokigun zer ikusia zala, esan eustan. Dimostarra gogor agertu zala beretarren alde. Eta gaur, lengo bizkaitar idazle guztiai muzin egiñik, "deust" daukagu irakurgaien asieratik azkeneraiño.

Olako zer nimiño batzuk kendu ezkerro, zentzun aundiz osotuak dira irakurgaiak beraz, goralpenak merezi dabez orretan saiatu diranak. Olan au be, arrokeri barik esanda, nik beiñola, I942 an asitako Meza liburu- itzulpena ederto buruturik geratu da.

Aita Akesolo'k orretan be jarri eban bere garaua, nik "Fitxak" egitean lagundu eustan aplu bat beintzat. Eta onek adierazo nai dau edozein momentutan nebala lagungarri.

Dimostar argiak ba-zitun bere akatsak -eta nok ez?-, Ainbat urtez berarekin bizi izanik, ba-dot nik orren barri, baiña eurok izan beitez bion artekoak zugatz biren gaiñean emoniko birigarro-kantak abeslari hion artean diran legetxe, edo-ta lats-bera urak daroezan orri igar hiren mosuak iduri, misterioz beteak. Orrela ez al dira eurok askoz duiñago.

Aita Lino nire urratsez ihiltan zan geienez, ez jatan iñoiz etorri lan au egin bear dogu, liburu au itzuli, izkuntza au ikasi esaten: Karmona'n gu aleman ikasten asiak giñala, bera be itsatsi jakun... Ixillean egin oi zitan enkarguz emandako lan batzuk (bein Donostian, ango eleiz-itzulpenetan ziarduala, bere langelan sartzen ez eustan itxi); sostenez erakutsi gura ebazan, antza, bere lanak.

Ipar-aldeko euskalkiak maite ebazan; bitxi-zale zan eta olakoetarako oi zuen beti. Orreik guztiok jasoz, ingurrasti asko eukazan idatzita. eta bere idatzietan be askotan erabilli oi ebazan euskal-bitxiok bere lanak ederresteko: gazte-gaztetatik genduan apunte-zale amorratua. Egiazko euskal idazle izan nai dauanarentzat ezta amorru ergela.

Labu7º Dimostarraren griñak eta nireak, gaztetxotik izan ziran, bultziren gurrillak lez, azpian aurrez jarritako hurdin-ari autatuzkoak. Gure burdia etzan egundo be itzufi, alkarri sendo-sendo oraturik gurrpil orreïn gain jokatu gendun bizitza guztian. Egurretan edo iretan dabiltzan idi-buztarriak he noizik-bein izaten dabez alkar-zauskada batzuk. baita guk bere; baiña beti aurre-ra, atzean etorren akuluaren zauriari jaramonik egiteke. Orain. a betiko zorientegian eta ni emen, euskal baratzean nabillela, sentitzen dot sarri aren eza.

AITA ONAINDIA

PADURA
(1° SARIA: 40.000 PTA.)

Gaua da... Gau illuna...
Bizkaiko zeru ganean ez da illargirik agiri,
ez izarrik...
Dana illunpean dago: mendi, zelai, uri eta baserri.
Dana bake gozoan lotan dago, ixilik...

Eguneko nekeak Qaueko atsedena eskatzen dau,
eta etxeko jauna, bere basetxean etzunda dago,
iñarrezko oean, emaztearen ondoan.

Ez daki zergatik. baina urduri, ezin dau loak artu.
Kezkaz josirik, ezin egonik,
oetik jagi, eta etxeko atarira doa,
eguraztera, ipar aizea arturik, hurua garbitzera.

Eta, ara!
Gorbei mendi gaillurrean, gau illunean,
sugar bizi bat ikusten dau.
Zer da au?
Oitz. Soillube, Ganekogorta, Golitza tontorrek bere,
sugarretan dagoz.

Ea. bizkaitarrok, itxartu!
Itxi oeak. Jagi bizkor.
Jo gudurako adarrak.
Artu ezpatak, uztai-geziak.
Zorroztu aizkorak.
Zut!
Bizkaia arriskuan dago...

Itxi alde batera gure arteko asarreak.
Danok alkartu, bat egin, eta al dan arinen,
Padurako zelaian bildu gaitezen.

Urduñako atxetatik beera arrotzak datoz,
Nerbioi ibarretik aurrera, Bizkaiko biotzera,
guri alkartasuna lapurtzera.

Bi milla zaldizko,
eta ezin konta ala oiñezko,
euren burdin-jantziekin,
euren kasko, babeski eta ezpata zorrotzak.

Ordoño. Leongo erregea dator buruzagi,
zaldi zurian, kapa gorri.
Arroki. jaungoiko aaltsua dirudi.

Deadarka datoz garaille,
baserriak erre, abereak ostu,
dana ondatu, kiskaldu eta txikitu...

Gureak Padura ondoko baso itsuetan ostendu dira...
Pago bakotxaren ostean, arri bakotxaren babesean,
bizkaitar gudari bat dago, gordeta ixilik,
burruka noiz asiko, barruko asarreari ezin eutsirik.

Emen dagoz!
Bizkaiko semeok,
artu aizkorak, ezpata eta azkonak.
Egin irrintzi. Jo adarrak!
Dardaraka jarri bediz atxak, ikaratu atzerritarrek.

Asi da burruka, gogorra, latza,
otsokumeak leoi arroaren aurka.

Eusko gudariak,
katamixar arinak,
saltoka, ikotika,
belau arin, garri bigun,
makur eta zutun,
arerioen artera sartzen dira.
Aizkorakin, ezpatakin,
bear bada ukabil eta agiñakin,
jo ta ke diardue, azken arnasa emon arte.

Euskal semeok!,
gure aberriarengatik,
gure ume eta emazteengatik,
aurrera beti, jo gogor, il edo bizi.

Baina atzerritarren burdin-jantziak nork apurtu?
Areen koraza gogorrek nork zulatu?
Gure mutillen aizkorak,
atzerritarren burdin-jantzietan alpeirik jo eta jo,
gutziz dira amuztu.

Padura zelaiko mendi-lorak,
euskal gaztediaren odolaz dira gorritu.

Ama batek bere iru seme ikusi ditu
atzerritarren ezpatapean jausten...
Seme baten aizkora artu,
eta aizea baino ariñago,
tximista baino biziago,
begiak sugarretan,
arerio guztien erditik bide eginik,
Ordoño erregearengana zuzen zuzenean doa.
Eta bere umeak ostu deutsoezan utso emearen antzera,
jauzi egiten dau erregearen zaldi ganera,
eta aizkorakada batatz, buruko kaskoa erdibi egiten
deutso.

Leondarrak, euren erregea Iurrean ilda ikusita,
adorea galdurik, armak lurrera jaurti dituez,
eta zaldi eta gizonak naastekaturik,
itsu-itxuan alkar zapalduz,
igesian doaz, zoraturik.

W

A, bai, triskantza gorria! A, bai, sarraski ikaragarria!
"Jo Qogor", diño e gureak,
"ez itxi bat bere bizirik!"
Jarraitu atzetik Bizkaiko mugaraino,
Malato aretxeraino.

Bizkaiko seme leialuk.
josi zuen aizkora eta ezpatak
Malato zugaitzaren enborrean,
eta bular betean egin irrintzi!
Garaipen irrintzi luzea!,
Bizkaiko ibar-mendietan entzutekoa,
milla gizaldietan gogoratzekoa.

Eta orain, goazen burruka lekura,
gure ildakoen gorpuai lur emotera.
Asko dira... Zelaiko arriak gorritzeraino...
Eta zuretzat bere, errege Orduño.
bego an goian lekuri...
Jaungoikoaren altzoan ez da gorrotorik.

IÑAKI GOIKOETXEA S.J.
(Basarte)

ENBEITIA TA GOIRIA'tar Sabin 1908'an jaio zan
Uzparitxa jauregi-baserrian. Aitarengandik artu eban ber-
tso-zaletasuna.

Erriz-erri ibillia da bertsoetan.

1936'ra arte Bilbao'ko "Campos Eliseos antzokian,
Gernika'n, Zeanuri'n... aita Urretxindorragaz Foru'n,
Busturi'n eta Bizkai'ko erririk geienetan ibilli zan.

Elgezabal'tar Oskar'eri
bere Bilbao'ko garaitzagaitik
zorionak.

Apurtu dozak Timonen Boles
España'ko txapeldunak,
ospe aundiaz etorri arren
zapaldutzen euskaldunak,
alperrikoak izan dituez
ein dabezana alegiñak,
alperrikoak izan dituez
ein dabezana alegiñak,
orixegaitik emoten noia
biotzetik zorionak.

Baruetabeña'tar Gregorio'ri
Muxika'tik Ameriketara biotz-biotzez.

Alde batetik okolo eta
bestien askari mendia.
Bien erdian Beko Errota,
Barrueta'ren kabia,
zori oneko errekartia.
Zu jaio ziñan tokia,
zeuri begira gau ta egun
antxe daukazu sendia.

Martitegi'tar Boni emazteari zorionak.

Lau seme-alaba ta zortzi illoba
daukazuz ludi onetan,
suin eta erren beste lau dira
alkarturik sendi onetan.
Danak biotzez maite zaitue,
au diñotbene-benetan
artu egizu nere biotza
une zoragarrietan.

Sabin Enbeitia Goiria'k.

AITONA SINISGOGORRA (2n. SARIA: 30.000 PTA.)

Emeretzigarren mendearen erdi aldera, Europa'ko laterri batzuetan. asmatu berria zan lurrin-indarrez ibiltzen ziran su-gurdiak jarri zituztelarik, andik urte gutxitara gure lurraldera ere iritxi zan aurrerapen ori, eta, asmaketa orren ondoren, zearo aldatu zan bate-tik-bestera ibiltzeko era.

Emengo biztanleak kezkaturik eta ezin ulerturik zeuden nolakoak ote ziran berak bakarrik, zaldirik edo mandorik gabe ibiltzen ziran gurdiak. Aietako bat, urtez ongi ornitua zegoan aitona Pello Mari zan. Oso sinisgorra zalarik, ezin zitzaion buruan sartu esaten zuten eran, berak bakarrik, iñoren laguantzarik gabe, ibilli zitezkeenik, eta, berekiko, ziur zegoan, ezkutuko zerbait izango zutela iñork ikusi gabe ibiltzen laguntzen zieten.

Noizbait asi ziran tren-bidea egiteko lekuak auke-ratzen; soro, zelai eta mendi egaletan iraulketak egi-ten, eta baita, errekek, ibaiak eta bideak gaiñetik zearkatzeko arrizko naiz burnizko zubiak non egin bear ziran markatzen, eta, era berean, bidea errezte-ko mendien azpikaldetik igarotzeko lurpeko-bideak edo timelak nundik-nora zulatu bear ziran erabaki-tzen. Ekintza auek naiko izpideak sortu zituzten, ikusirik baten soroaren erditik igaroko zala, besteari sagastia ondatuko ziola eta era ortako berriketak, baiña, azkenean, gizartearen onerako izango zala-ta, onartu bearren aurkitu ziran gertaera au.

Tren-bidea eraikitzen asi ziranean kanpotar asko eldu ziran gure lurraldera, bada, garai artako lan-tresneria kontuan izanik, eskulanerako langille asko-ren bearra gertatu bai-zan, eta, lanak amaitu zira-nean, bat baiño geiago bertako egin ziran, emenao neskatiillen batekin ezkondata. Aurrerapen onek sortu zuan atzerritarren etorrera gure lurraldera, ge-roago. urtetan zear ain ugaria gertatu dana, azken ba-tean gure izkuntzaren kalterako izan dana.

Polliki-polliki, burni-bidea bere itxura artzen zi-joan arabera, geltokietako etxeak eta beste biltoki edo almagaznak ere egiten asi ziran, eta bein batean, aietako biltoki baten ingurutik igarotzerakoan, aitona Pello Mari'ri burutapen au bururatu zitzaion; alegia, zaldirik edo mandoak gordetzeko lekuak izango zira-la, eta, lenez gain, bere irudimenaren susmoak indar-

tu egin zitzaizkion, trenak ibiltzeko bearko zituzten abereentzako izango ziralata.

Tren-bidea egiten ari ziranean, jakiña!, trenaren arazoa izaten zan izpide burni-bidearen inguruan bizi ziranean artean, baiña, Pello Mari'k berean ja-rraitzen zuan, eta gero ta gero, sendoago, batez ere almazena ikusi zuan ezkeroztik. Ez, ta ez!, ezin zite-keela iñolako moduz bera bakarrik ibilli orrenbeste aipatzen zan tren, eta era ontan argudiatzen zuan: `jendea naiz zamak batetik bestera eramateko, nai ta naiez, zal-gurdiak eta mando-gurdiak ibiltzeko ongi mantendutako zaldi edo mando indartsuak bear-bea-rrezkoak ziralata eta gaiñontzeko argudioak iñozoke-riak besterik ez ziralata".

Noizbait iritxi zan. gauza guziekin gertatzen dan antzera, trenaren asierako eguna, eta, goiz artan. burni-bide inguruetako jendea urduri zegoan zer ikusi bearko zuten zai. Alako batean, iraQarria zegoan ordua baiño ordu bete beranduago, an azaldu zan, urrutian, tzipi-tzapa, tzipi-tzapa, kea zerurantz zeriola eta zarata aundia sortuz, tren. Gure aitona, bere ba-serriko atarian zai zegoan, eta azken urteetan begietan gauzak sortu zitzaizkiolako, urrutira ez zuan ongi ikusten baiña entzumena oso ongi zeukan, eta trenak ateratzen zuan otsa garbi-garbi entzuten zuan. Ain zuzen, bera aurkitzen zan lekuaren parean tren-bidea-ren malda baten asiera zegolarik, trenaren abiadura moteltzen asi zan eta, malda gero ta gogorragoa ger-tatzen ari zitzaion trenari. Tzipi-tzapa soiñua ere lu-zeago entzuten zan, eziñean ba-lijoa bezala, eta ikusi-rik makiñaren alboetatik lurrin zuria itzultzen zitzaio-la, trenari tiraka zijoazen abereek botatzen zuten ar-nasa zala iruditen zitzaion gure aitonari.

Andik aurrera, egunero ikusten zuten tren malda gora zijoanean, tzipi-tzapa soiñua larritzen joaten zi-tzaiola trenari eta, aitona, onela mintzatzen zan: "Noski, malda goraigotzen dijoan bezala abereak ne-katzen dijoaz eta orregatik abiadura moteltzen zai-otrenari". Bere etxeok, alperrik zala eta ez zioten jaramonik egiten, baiña, aitonak, berriz ere lengoan jarraituz onela mintzatzen zitzaien, "bai. bai, zuek jarrai orrela, baiña egunen batean konturatuko zerate nolako ziria sartu zizuten. Ez neri, ordea!".

Egun batez, peritik etxera tren-bide inguruko bidetik zijoala, zama-tren batek aurrea artu zion, eta besteetan baiño astunagoa zalako zeraman zama edo bagoi geiago zeramazkielako, oso motel zijoan leenago aipatutako maldan gora, eziñean bezala, ta maldaren erdi aldera iritxi zanean, txistu luze bat jo zuan gidariak eta trena gelditu egin zan, makiñaren alboetatik lurriña zeriola. Gure aitona atzetik zeterren eta pixka bat ausartago zegoelako, noski, besteetan baiño bazkari ohea egiña zalako, bere baitan onela zion: "Orain dut egokiera ederra benetan tramankulu au nola ibiltzen dan jakiteko", eta burni-bidera igo eta azkena zegoan bagoitik asi-ta, banaka, banaka, ate zirrikuetatik begiratzen asi zan, baiña ez zuan ezer ikusten ateak ongi itxiak zeuzkatelako. Alako batean. or ikusten du bagoi iriki bat, orretarako erabiltzen dituzten oial edo toldo aundi batekin estalita, lasto-pardoak eta pentsu zakuak zernalnazkiela. Ikuskizun onek ernai-erazi zuan aitona. eta urrengo hagoira urbiltzen ari zanean, anka soiñuak entzuten asi zan, eta bertaratutakoan, barrenen zeudenak arnasa artu zezaten ateak tarte bat zeukalarik, or ikusten ditu dozena bat zaldi, erdiak alde batera begira eta beste erdiak beste aldera, tartekatuta zeudela.

"Esaten nuan nik, tranpa nunbait egongo zala eta orra nik orain argi ta garbi ikusi! Ai, gizajoak nola engiñatzen dituzten, ez ni, ordea! Aspaldi esan nuan, oraindik ez dala sortu ta ez dala sortuko ere, bera bakarrik ibilli daiteken tresnarik!".

Bereala tren-bidetik jetxi bidera eta etxeratu zenerako bere sendikoak apaltzen ari ziran, eta, ez bat eta ez bi, onela mintzatu zitzairen: "Zuek gizajo batzuk zerate. Esaten dizuten guzia siñisten duzute eta neri parra egiten didazute, baiña azkenean zaarrak arrazoi. Orain ikusi aal izan dut nere begiekin, trena zaldiak ibiltzen dutela eta iñork ez ikusteko tranpa ori, bagoi batean gordeta daramazkite, noizik bein, tiraka dijoazen zaldiak nekatzen diranean aldatzeko abereak, eta beste bagoi batean pentsua eta lastoa aberei jaten emateko".

Danak, bat-batean, aitonari begiratu ondoren beren baitan onela zioten, "gaur aitonak bapo bazkaldu dik eta ongi busti jandakoa, eta betaurrekorik gabe ere, guk ikusteko aalmenik ez duguna ikusi dik".

Orrela bukatu zan aitonaren sermoia. eta oeratu eta esnatu gabe lo gozoa egin zuan gau osoan.

KORTAJARENA'tar ANDONI

Enbeita'tar Imanol'eri, MuxiKa'tik Ameriketara, bere jaiotz-urteurrenien, zorionak

Millaka aneurkin egonagaitik emendik Ameriketara, itxas-ontziak eta egazkiñak, beingoan eltzen dira orra; idazkiak be tximista baten dabiltz orra ta ona, esango neuke baiña, idazteko nagikeria dodala, edo idazkortza ugerrak janda, zegaz idatzi ez dodala.

Nagikeria alde batera itxita noia idazten. Zu jaio ziñan basetxe onetan beti zaitut gogoratzen, idazti gitxi egiñagaitik zu etzara asarratzen biotz-barruko maitasun-garra dozulako ezagutzen, anai-biotzak egun danetan diralako besarkatzen.

Urte danetan dagonillaren ogei ta amaikagarrena zar eta gazte, sendi guztiak pozik ospatu doguna, geruago ta aundiaua da egun onen maitasuna, beti gomutan daukagulako Imanol, zure eguna. Artuixu ba-da, anai Sabin'en biotzetiko zoruna.

Usparitxa'ko baserritua gomutan dozuna sarri, oin iru urte agur gozo bat egin zeuntzana berari, maitasunezko besarkada bat emonik zeure amari, negar malkotan agur bero bat beste sendi guztiari, Ordutik ona begira nago neure anai txikiari.

Sabin Enbeita Goiria

SOLLUBEKO BI EZKURRAK (3n. SARIA: 20.000 PTA.)

Soillube'tik ikuskizuna: itsaso zabala alde bate-tik, Gernikako ibaia, Mungia eta txori-erria, Udalaitz eta Anboto, Gorbeia... eta oiñ azpian, Bermio.

Gernikan erne nintzan, muiño batean, Santimamiñetik ez aiñ urrun. Areitz eder bat egin nintzan eta bizkaitarrak nere babesean, nere itzalpean, egiten zituzten euren batzarrak...

Bi karlistada ezagutu dodaz, joandan mendean eta Gernika kiskaltzen ere bai mende onetako guda madarikatuan... Iparagirrek abestu eban lenengoz, eta Madrid'en, bere "Gernikako Arbola" bigarren karlistadaren ondoren...

Joan dan mendeko bi gerrak Euskalerrria utzi eben galduta, pobrezian eta tristuran.

Mendian bezela, itsasoan ere... Kaietan batel-txoak, trañneruak eta atunetako txalopa-andiak... 1912'ko udarako galerna itzalak ekarri eban erio-tza eta negarra... Sota'ren "Goizeko-Izarra" k jaso ebazan gizonak udetatik; baiña, famili askoek ez eben orrelako suerterik izan, semeak eta gurasoak alkarrekin joan ziran ondora...

Bilbo aldera begiratu ezkerro, berriz, burni-meatzetara erdaldunak eldu dira baztar guztiak zapal-tzen. Euskadi galduta. Ez da arritzeko Sabiñek oi u egiten ba dau:

"Il naiago det/ikusi baiño/aberriaren amaia...
Zure basotik atzo igoten zan
eskari ona zerura
gaur erdaldunak sartuta
aixea be birauz bete da.
Nolan ondiño il ez zara?"

Tostartekoak beti makal eta pobre... Baserritarra nekez... Lantegiak erbestekoez beteak... Baporak sortu dira eta txalupa-andiak galdu... Piñu balzak jan dituz gaztain eta areitz-basoak... Galdu gara betirako...?"

Burua jasotzen ekin dogu eta bere onera ekarri baiño lenago, Franco'ren zapalketa eta Gernikaren triskantza.

Euskadik, ordea, dirau eta Gernikako areitza ere bai:

"Areitz bat Bizkaian da
zar, sendo, zindo bera ta bere
Lagia lakua..."

Nere aizpa Gernikan, baiña neu Soillube gaiñean sorturiko areitzaren ondorena naiz. Erori nintzan lurrera eta bertan sortu eta azi areitz sendo-ederra egin arte... Bermiotik etorri ziran gizonak aizkoraren ago ankerra neure gerrian ipiñiz eta ebagi ninduen, arbola luze-lerdena nintzan au. Zeru-aiñokoa nintzan.

Bermioko kaian egiten ari ziran iru mastako ontzian, masta-erdiko ipiñi ninduen, laukiko iru oial aundieri eusteko... Irureun toneladako ontzia, baleetarako egiña: bost txalupa barruan. Aietatik lau baleari segitzeko. Bosgarrena gordeta, bateren bat onduratuko balitz errespetorako...

Balea gure kaietatik urrundu zan eta Terranobako udetara joan bear, Labrador partera, bale-billa. Lau txalopa arrantzarako eta lau patro: kapitana, pillotua, maixua eta kontramaixua, bakoitza be-rean...

Masta-muturreko mutillak, balea!, deitzean, kapitanak bale-ontzia aruntz zuzentzen dau, bi millertara eldu arte eta orduan txalupak udetara botau, eta, aizea popatik ba'da, oialez eta bestela, arrau-nez balearengana jo. Gertuen dagoen txalupak botaten dautso lenengo arpoia eta bigarrena al ba'da. Geroago beste arpoi bat sartun ezkerro, oba da balea urpera joaten lagatzea... Irtetan dabenian, sangraderekin zauritu, "odol aundietan" oba. "Odol txikiak" diranean, nekez iltzen da balea...

Azken arnasa emoten dabenian, orduan atoian edo erremulkan ontzira gerturatu, indioekin gerrak diranean. Pake garaian, berriz, legorrera eraman bertan eraikitako txabolara, an zatituteko eta, txingarrak egiñez, koipeak atara eta barriketean immi-

ñi... bodega guztiak bete artean. A zer poza udazkeneko aize epelakin etxeruntz abiatzen geranean... !

Labradoreko eskimalek euskaldunekin zearo asarratu dira joan dan udazkenean, bale-ontzi batego mutilek buruzagiari emaztea arrapatu ziotelako... Aurten udaberriari agertu geranean, sekulako eriotzak egin dituzte txaboletako gizonen artean eta urtutze-lanak barruan egin bear izan ditugu, ontzia erretzeko arrisku aundiarekin... Labradoreko parte onetan ez degu aurrerantz pakerik izango, gorroto bizian bait daude gure aurka. Ez dute arrazoirik palta.

Negua bere sudurra agertzen asi danean, etxeruntz jo dogu, oial guztiak zabalik. Illebeteko deskansua daukagu bidean, ames egiteko denbora luzea... Eskimalak ez diran indioekin ondo alkaritzen gara eta agur egin diegu datorren udaberriate:

Euskaldunak. etorri berriro gure Qana. Ekarri sagardoa, ogia, burnizko aizkorak eta lanabesak gure kastor-larruekin trukatzeko...

Zenbait neskaitilen begietatik malko epelak erortzen ikusi dodazen. Gorputzaren azal-koloreak ez dio maitasunari esirik ipintzen: baiña, gure mutilek euren biotzak Euskalerrira begira dabez... An urrutian Bermioko kaleak ikusten dituzte. Kale zoragarriak. Zein illebate luzea Terranobatik Bermiora bitartekoa...!

Zer istilluak eta zer algarak ontzi-muturra, Matxitxakotik aurrera, abiatzen danean kaira sartzeko... Zazpi illebate zure kalerik ikusi barik... Neuk be antxe ikusten dot Soillubeko tontorreko neure sor-lekua. andik atera ninduen bale-ontzi onetako erdiko masta izateko...

Zer zoriona etorri diranentzako eta berton zai-zai eta arduraz beterik, egon diranentzako. Altis-kuak, nekeak eta izardiak koipe biurtu diraz eta, koipe oneri eskerrak, orain negua etxeko epeletan igaroko dogu, udaberriak lur osoa berpiztuko duen arte...

Neguan, oraindiño ere, baleak agertzen dira gure kostaldean: banan-banan, ama danak parte artzen dabe; baita alboetako kaietako ontziak be... Zenbat burruka sortzen dan kaien artean arrantza onetan... Zergaitik? Lenengo arpoiak kalea bere

portura eruaten dabelako. Eta, bale batek aberastason aundiak ekartzen ditu errira... Alegindu egin bear lenengo arpoia sartzen...!

Eldu da berriro udaberria eta berriro oial zuriak masteetan zintzilik...

"Boga, boga, mariñela
joan bear degu urrutira...
bai Indietara".

San Lorenzo ibaiaren kolkoan baleak sardan: nai dan beste koipe dogu barriketan sarturik. Bodegan oraindik leku apurtxo bat badago libre eta uraxe bete nai... Antzarrak nortetik egoalderuntz abiatu ziran joan dan astean, baiña kapitanak beste dozena bat barrika gura ditu guztien partillak obeatzeko... Bat-batean egoaldia aldatu da. Ifaraldeko aizeak jotzen dai. indartsu eta oialak arria bear arin. Aizearekin batera otzaren madarikazioa. Diru-goseak galduko gaitu... Itsasoa izozten asi da. Izotzak arrapatu gaitu eta ontzia ondoratu da. Agur koipeak, agur diruak, agur ametsak, agur Bermio...

"Ez det, nik ikusiko
zure kai ederra..."

;**

Soillubeko areitz ederra Labradoreko ur izoztuetan gelditu da betirako, etorkizunean andik iñork ataritzen ez ba'dau.

ARRINDA'tar ANES
1992

Sardui'tar Deunoro'ri zorionak

Urtien asieran
negu illunian
mendi-gaillurrak zuri
bixi ziranian
otzen bildurrik gabe
agertu ziñian.
Zorionak Deunoro
jaiotz-egunian.

Sabin Enbeita Goiria

ALAIN, EIZTARIA (4n. SARIA: 10.000 PTA.)

Azkura gogaikarria bere amesen gaiñetik nabarmentzen joan zan, esnaerazi arte. Astindu eban belarria bere lo goxora itzultzen aalginduz, baiña alperrik zan; baekian loak ezin izango ebalatu bein itzarturik. Marmarka eta oindiño jarkiz, pitika pitika begi bat zabaltzen asi zan. Leiorantza begiratu gura eban, baiña egiterakoan ez zan orrekin topatu, orri illun batzueguz baiño. Arrituta. samea luzatu eban, obeto ikusteko gogokizunez, amesetan erraiolakoan, baiña orriean egoala egiazatu eban barriro.

"Ze demontre eiten dabe sasi oneek nire bentanien". Ezuste ederrena leiorik ez egoala ikustea izan zan. Izan be, baso erdian zetzan, aretxen artean azten ziran sasiak aterpe lez artuta. Alan be, nagiak atera ondoren, eta ezer ulertu barik, etxerako bidea aurkitzea erabagi eban. Zerura begiratu eban, erantzunaren zain, baiña ikusten zan gauza bakarra aretxen adarrak eta orriak zirala, besarkaturik, beste zeru orlegi bat eginda, ezkurak ortik eta emendik izarren lekuan.

"Ezkurrak, baiña benetan bururatu jat ezkurak jaten astea?". Bere bear bako umoreari birao bota ondoren. bideari ekin eutson. Ba ekian, edo ori uste eban, zein basotan egoan, eta ortik etxera eltzeko iparrera jo bear eban. Zorionez, odoldiak esan eutson nondik joan, aretxen alde bakar baten erneten zan eta.

Zizpuratzen ebillan, zer ez leuken emongo izpillu baten truke... Zikina eta saskela sentitzen zan, garbitzeko urik barik, eta bere arpegi uletsua eta bizar kendubakoa ikusi gura ebazan. Arin mugitu bear zan, bere emaztea eta anaiak arduratu aurretik eldu gura ba eban. Gainera, gose zan (eta bere buruak ezkurretara egaz egin eban barriro, bere urdaila geiago zirikatzeke), eta ez ekian noztik egoan jan barik.

"Non ete nago?, eztut eze be gogoratzen. Seguruenik arrapakin baten zain egongo nintzan eta loak eroan ete nau. Baiña orduan, non itxi dot fusilla, ba? Eztot inondik ikusi eta... Ta noztik egon naz lotan...". Baiña alperrik zan, ezin gogoratu eikean gertatutakoa. Ezer burura ekarri orduko, dana biraka asten zan, ia zorabiatu arte.

Bere aalegiñak aaztea erabagi eban. Buruan eukan gauza bakarra etxera leenbaileen eltzea zan, eta oiñak azkarrago mugitzen asi zan. Ez eukan galtekeo astirik, eta are gitxiago euri tanta bat sur gai-

nean somatu ebanean. Ordurarte ez zan oartu, aretxek aterpe lez egiten baiteben, baiña orain orriak euritan blai egozan, eta tantak izurtzen ebezan baso osotik.

Orain bai, Alain, eiztaria, eriñeketan ebillan. Ez jakon gustaten eguraldiaren arpegia, eta gaiñera, fusillik barik biluzik lez sentitzen zan. Otsoak eta bera ez ziran oso lagun onak, eta aize otza joten asten zanean, inguruko mendietatik jaisten ziran, babesa eta janariaren billa. Izerdi eta euri naasketa batetan blai, urduri eta dardartsu otoitz egiteari emon eutson, lasterketari itxi barik. Orain gogoan eukan gauza bakarrrar bere emaztearen irudi maitatua zan, zutunik, basetxe aurrean, senarraren zain.

Bapatean zerbaitek geldierazi eban. Asieran ez ekian zer izan zan, oiñak burua baiño azkarrago ibili baitziran, baiña bereala oartu zan zergatiaz. Lurrean, basatza bihurtutako lurrean, tanta okre batzuk ikusten ziran eta astiroago aztertu ondoren ekusana odola zala jabetu zan. Otzikarak astindu eutson soiñ osoa, andik aldentuteko aolkatuz, baiña ezin. Zergatia jakin barik, lorratzaren atzetik abiatu zan.

Odolak bide argi bat egiten eban, arestiaren biotzerantza. Zauritutako abere edo gizaki bat pizti batek narraz eroan izana zala emoten eban, eta Alain atzetik joian sorginduta balego lez.

Zugaitz baten esku odoltsu baten irudia gizaki bat zala baieztutera etorri zan. Alainei beko ezpanari koska egin eutson, bildurti, baiña alan be, zerbaitek jarraitzera bultzatzen eban.

Orduan bai, ikusi be, ikusi egin eban. Itzelezko pagotzar baten azpian inoiz gizon mardula izana zetzan, odoletan blai eta oindiño geratzen jakozan odol tantak eriozala.

Iñoz baiño dardartsuago, urreratu zan. Begiak ikusteari eusten aal-egintzen ziran, baiña azkenean, izuak eta odolak itxuraeztuta, bere arpegia ezagutu eban. Guztiz ikaratuta, ixtitu zan paroxysmoaren erteraiño.

Zentzua berreskuratu ondoren, azalpen baten bila asi zan: "Guzti au ames gaizto bat, besterik ezta. Bazter ezezagun baten iratzartu naz, eta orain neure gorpua aurkitzen dot... Ez, eztako zentzurik... Bizirik nago, orretaz ziur naz. Gose ta otz naz, somatzen dot, ta ildakoez eztabe ezer... Zelan esan daiket ori? Ez naz iñoz ilda egon. Ez, zoratuko naz azkenean".

Baiña garrasi batzuk bere pentsamenduak moztu-tera etorri jakozan. Adi itxadon ondoren, abots ezagunak entzun ebazan. "Neure anaieak dira, nire billa ei dabilza". Itxaropen argia biztu zan bere gogoan. "Ilotza topau aurretik aurkitu bear dodaz. bizirik ikusi bear nabe".

Korrika urtetean pozu baten sartu eban anka. Gura barik uretara begiratu eban, uinak gelditu arte, eta ikusitakoak irudiz bete eban burua. Orduan bai, gogoratu egin eban gertaturiko guztia.

Eta an, ura baizen garbi, bere burua agertu zan irudimenean. Sasipetan egoan, fusilla eskuetan, afa-riaren zain. Aretx sendo baten ondoren, berak imiñi-tako arrapagailu bat, arrapagailu bat beste askoren artean. Orduan, beste baterantza joatea erabagi eba-nean, zerbait mugitu zan oianpean. Adi egoan. geldi geldirik. Altxatu eban fusilla eta itxadon egin eban.

Bapatean basurdekumea agertu zan, alaiatsu eta axolabako. Bereala itxi eban fusilla eta piztitxoa al-dentzera abiatu zan, baina gixajoa artean jauzi zan. Errukiturik, askatutera joan zan, bestela basurdeku-meak berak anka ebagiko leuskio bere buruari, agin-ka. Arin ibili gura izan eban, eta egin be egingo ei-kean, aren ama agertu ez balitz.

Ezustean arrapatuta, ez eban bere burua babeste-ko astirik euki. Sumindutako basurdea bere gainera jauzi zan, orzka eta aginka. Ia, ia jasandako mina bizi eiken... Baiña zorionez, gitxi iraun eban, eta dana illuntasun biurtu zan.

Orain, ez ekian zelan, baiña argi ekusan: pozuan agertutako irudiak ez eban guzurrik esaten: bera zan basurdea. Pizti ak arima be irunsi eutson, eta orain aren barruan bizirik zirauan.

Basurdea -entzun eban, errealitatera itzuliz-, ba-surde madarikatua izan da! -bai. bere anaia zan. Ilo-tza aurkitu eben.

Zin dagit eztodala atsedetik artuko bere burua lortu arte! -esan eban bestek, aserre bizian. abotsa negarrak apurtuta.

Etsituta, Alainez egin eban aal eban gauza baka-rra. arrapaladan oianpean desagertzea, bere urdezko begi illun eta goibelei malko gezamiñak eriezalarik, betirako ala anaiek aurkitu arte.

LUZARRAGA'tar ASEL
(IDITTU' k)

IMANOL NEURE ANAI KUTUNARI

Zaukat beti biotzian
basetxe baten jaió giñan-da.
Gero aldendu giñan
zeure txokotik atzerrirantza.
Egazka joan ziñian,
baiña biotzak alkar josirik,
naizta soñez urriñian,
maitasun orrek iraun daiela
bizi garian artian.

SARDUY TA **ENBEITIA'TAR** ELITXU'RI **BERE** LENENGO JAUNARTZE EGUNEAN

Zubipunteko loba gaztena
besoetako kutuna,
guraso onen alabatxua,
lora polít usaintsua
lenengo aldiz zure barruan
sartu da Jesus Aurtxua.
Gi, ra genduke zu izatia
Jesus'en lagun zintzoa.
Bide ontatik lortuko dozu
betiko zorun osoa.

Orain dirala sei-zazpi urte
agertu ziñan ludian,
gotzon zerutar egotxuduna,
polita bene-benetan.
Ordutik ona soin eta gogo
zuririk egun danetan,
maitasunezko irri-parria
dozularik ezpeñetan.
gura genduke beti aingeru
ikusi ludi onetan.

Sabin Enbeitia Goiria

LAURAK BAT

Ez dakizue noz sortu zan alkargo baten izen au?

Bear ba'da, ez zeatz eta ondo. Orregaitik orain auxe da nire asmoa: Argi ta garbi orren kondaira edo edestia zein dan zabal argitzea.

Ego-Ameriketan, lurrez benetan aundia dan Arjentiña laterrian, sortu zan 1877'an. Zioa ta garaia, Foruen kenteagatitik erantzun sendoa emotea zan.

Argentiña'ko uriburu dan Buenos Aires'en 13 euskotar bizi ziran eta 1876'ko garagarrillaren 21'ean "Laurak Bat" bazkunari biziaa eta izena emon eutsoen, euren arteko euskaldunik zarrena buru eta nagusi zala.

Zein zan artezkari orren izena? Zein zan euren elburua? Zeintzuk euren asmoak?

Urtero antolatu edo eratu, Lege Zarra edo Foruak kenteak zelako atzerapaena ekarri eban Euskalerriarrentzat, erri au etorkizunerako itxartu, Argentina'n egozan euskaldun beartsuai laguntza emon, erlejiñoari ta euskal-jakintzari indarra emon, Europa'ra barriro etorri-bearrean egozanai lagundu, ekanduzko jai-aldiak ospatu, eurai arnasea emon eta bizkortu, eta ez bakarik euskaldunai, onein senar naiz emazteai be bai...

Sortu eta urtebetera, 425 bazkide eukazan bazkunak eta 1930n. urtean 1.000'ra eldu zan.

Lenago, 1880'an Eusko-kirolak indartzeko, pelotaleku bat egin eben "Plaza Euskera" eritxona. Zorrak garbitzeko eta kontuak bideratzeko eta batzokia eraikitzeko ortik atera eben dirua. "Coro euskaro" edo euskal-abestalde bat be sortu eben eta euskaldunen jakintza ta eusko-ekanduak asko indaru ziran.

Talde ta bazkide guzti onei eusteko ta iraun-azoteko, Belgrado kalean aurkitzen zan "Laurak Bat" ek arzen eban ardurea eta onein jokabidea onartuz, 1929'an euskalzalerik geienak batu jakezan, benetako erriki-deak.

XIX gizaldiaren azkenetan, Buenos Aires'en iru giza-moltso euskaldun egozan eta Arjentiña'ko probintzian zear urtero alkartzen ziran txapelketak edo kirolak egiteko.

1940'ko jorraiaren 24'an Errekaborde'tar Martin Zuzendari Sule'tarrak alegiñak egin ebazan, eritxi ez-bardiñak bat egiten eta guztien laguntzaz EUSKAL-ETXEA sortu eban. Erakunde onen onurea ondo eza-gutua da Ameriketan eta euskotarren garrantzia asko ugaritu dau.

Batzokiak bere ondoren on eta aundia artu eban. Beronek, illero, arpidedunen diru-laguntzaz baliatuz, euskotar umezurtzen eta babes-bakoen ardurea artu



Ar/enriña'n euskul giroa sortt eban 'Zuuruk Bal'ek.



eban, Landeretxe umezurtztegia eta beste eginbear asko beteteko iraspenak sortuta.

LETONA'k

SASKI-BALOIA: KIROL IKUSGARRIA

Gaur egun, kirol ugari doguzala uka-eziña da. Mueta askotakoak eta bakotxa bere berezitasunakaz. Batzuk esatekotan oneixek gendukez: futbola, tenisa, esku-baloia, pilota, saskibaloia... besteak beste. Baiña euren artean kirol ikusgarri bat baldin bada ori saski-baloia da zalantza barik eta herari huruz zeozer esango dogu gaur.

JATORRIA

Kirol onek Laterri Batuetan (U.S.A.) izan eban bere asiera orain dirala eun eta bi urte. 1891ean ain zuzen, eta bere sortzaillea **Naismish** jauna zan, Massachussets-eko Springfield deritxon errian.

ZELAN?

Len aitaturako Nasmish jauna Springfield-eko ikastetxe haten soinketa-irakaslea zan eta I S91 'ngo Gabonillaren goiz batean, aldi aretan egiten eban otz aundia kentzearen, bere ikasleai jolas bat irakatsi eutsen.

Onelan izan zan: Saski batzuk artu eta soinketa-leku (gimnasio) bateko ormetan ipiñi zituan. Baloi bat emon eutsen ikasleai eta jarrarian arau batzuk sortu ebazan.

Ona emen batzuk: balioa erabilteko eskuak bakar-bakarrik erabiliko ziran, balioa alde batetik bestera eroateko jo bear zan lurrean, saskietara jaurti, eta abar.

Modu edo era bitxi orretan jaio jakun saski-baloia. Ortik aurrera. apurka-apurka, zabalduz joan zan, bai Laterri Batuetan eta bai beste Errialde batzutan be.

Guzti ori izango doQu idazteko gai, labur-labur izango ba'da be.

SASKI-BALOIA LATERRI BATUETAN

Gaur egun. bertako saski-baloia aitaturkeran, danak pentsaten dogu N.B.A.tzaz, txapelketa orretan munduko jokalaririk onenak jokatzen dahelako.

Bidezkoa da, izan be, gogoeta ori, baiña orrez gain badagoz heste gauza aitagarri batzuk be.

Saski-baloiak jaio zanetik orain arte aldaketa asko jasan dauz eta atal edo faseak be bai gaurko arrakasta edo ondore ona lortu al izateko.

Asikeran oztopo asko zan kirol au zabaltzeko: ezezaguna zan, oitura edo tradi-r.ño barik... Alan be, gauzak aldatuz joan ziran. Egitura eta eraketa on bat lortu zan eta ori dala-ta aurrerapen aundia ezagutu eban kirol onek.

Egiturak aitatzean mailla batzuk bereiztu geinkez: Alde batetik. "play-ground" deritxenak aurkitzen doguz. Au da. Laterri Batuetako kale guztietan, etxeetako atze-

kaldeetan, edonun ipiñi ziran saskiak gazteak jokatu egien eta zaletasuna aunditzeko, bide batez. Eta olan, errialde aundi orren zear ikusten doguz gazte asko ta asko saski-baloiarri ekiten.

Beste mailla batean, ikastokiak doguz. Eurretan, jokalarri gazteak, euren eziketa aberastutzeaz gain, euren trebetasuna obetu leikie, ango entrenatzaile edo gertularien laguntzagaz. Eta onek garrantzi aundia dau gazteentzako.

Orren ostean, Ikastetxe Nagusia edo Unibersidadea. Emen jokalarriak ba-doz euren eldutasuna lortzen eta aldi berean euren goi-maillako joko agertzen be bai. Gaiñera, ba dauke txapelketa aundi bat: "N.C.A.A.", au da Unibersidadeen arteko leia edo txapelketa.

Au 1939'garren urtean ibiltan asi zan eta ordutik ona, eten barik jarraitu dau. Emendik urten dira, geroago jokalarri ospetsu ta aintzagarri izan diran Wilt Chamberlain, Bill Russell, Jerry West, Elgin Baylor, Michael Jordan, eta "Magic" Johnson, esaterako.

Eta azkenez, goi-goien dagoan **N.B.A.** ospetsua dogu. Au da amerikatar jokalarri gazte guztien ametsa. Laterri Batuetako txapelketa aundia.

Onek 1946'garren urtean emon zituan bere lenengo urratsak eta ia, ia 50 urte betetzekotan dagoala, bere aldirik onenean dagola esan lei.

Gaur nork ez dauz ezagutzen Larry Bird, Karl Malone, Charles Barkley, David Robinson eta abar, eta abar?

Emen bai saski-baloi zoragarria egiten daben birrintak edo "mateak", iru puntutako saskiratzeak, trebetasun aundiko jokaldiak... eta abar.

Orri ezker saski-baloiak entzute aundia dauka, **BERE IKUSKIZUNAGAITIK**, itz baten esanda. Orren bitartez diru-iturri bat biurtu jaku eta luzerako doala esango neuke nik.

Eta Laterri Batuetako saski-baloia aitatu ondoren, ikusten dogu zelan beste errialdetan be, saski-baloiak indar aundia artu dauan, Europan, batez be.

Emen, txapelketa indartsuak he aurkitzen doguz. Orra, España eta italia'koak, ori bai, Yugoslabia zarreko taldeak aztuteke, ezta Sobiet Batasuna izandakoak be.

Baita beste lurraldeetara be zabaldu da: Ego-Ameriketant, Asia'n eta Afrikan be ba dakie kirol au jokatzen.


Guzti onen ondorioa au izan leiteke: Saski-baloia indartsu dogula eta etorkizuna be naiko baikorra.

Orra, asikeran jolas lez sortutako kirola, noraiño eldu jakun. Arrigarria, benetan.

1993'ngo Zezeillaren 3an.

MALAX-ETXEBARRIA'tar JON

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

150 PEZETA